



■ PRESO ETA IHESLARIAK

Josune Balda eta Jose Camacho, etxean

Ostiral iluntzean iritsi ziren Hernanira, Valentziako Picassent espetxean 7 urte eta erdiko kartzela zigorra bete ondoren. Herritar ugari bildu zen Tilosetan, harrera egin eta biak txalo artean hartzeko.

ZAZPI urte eta erdiko espetxe zigorra «osorik beteta», ostiral goizean atera ziren Valentziako Picassent espetxetik, Josune Balda eta Jose Camacho euskal preso hernaniarrak, Etixerat El-karteak jakinarazitakoaren arabera. Familiako kide eta lagunak izan zituzten zain, eta atera bezain pronto, Kepa del Hoyo preso izan zuten gogoan.

Oiartzunen izan ondoren, iluntzean iritsi ziren Hernanira, eta Tilosetan herritar ugari bildu zen bie ingietorria egitera. Dantzariak agurra dantzatu eta bertsolariak kantatu ostean, hitza hartu zuen Camachok, eta egindako harrera beroa eskertzeaz gain, Kepa del Hoyo gogoratu nahi izan zuten berriro, eta babes osoa eskaini zioten haren familiari. Ekitaldia bukatzeko, beren argazkiak kendu zituzten Garin tabernatik eta Nafar kaleko paretatik. ■



Jendetza bildu zen Tilosetan, Balda eta Camachori ongielortria egiteko.

Argazkia: HERNANIKO SORTU.

■ ERREMONTA BURUZ BURUKOA

Azken sakeari erantzutean kale, Barrenetxea IVk

Ikaragarrizko partidua jokatu zuten atzo Utergak eta Barrenetxea IV hernaniarrak, Buruz Buruko Ligaxkako aurreneko norgehiagokan. Tanto bakarreko aldearekin irabazi zuen Utergak, 30 eta 29.

PARTIDU egunaren bezperan aitortzen zion Kronikari Endika Barrenetxea hernaniarrak: «sakea tantoaren %70 da, Buruz Burukoan». Eta sake oso ona daukala ere bai. Baina baita restatzaile txarrena dela ere, Ligaxka jokatzeko ari diren lau erremontisten artean.

Horixe gertatu zitzaion atzo Buruz Buruko Ligaxkako aurreneko norgehiagokan; ikaragarriko partidua bizia jokatu zuen Utergaren kontra, eta tanto bakarreko aldearekin galdu zuen.

Azken sakera arte, eutsi
Barrenetxea IV hasi zen aurrea

hartzen, 7 eta 6, baina hortik aurrera, Utergak jarri zuen erritmoa. Hernaniarra, berriz, ez zen ohi bezalako sake onak egiten ari, eta Utergak sei puntu aldea ateratzea lortu zuen.

Ez zuen etsi, ordea, eta Utergari nekea nabaritzen hasi zitzaionean jo zuen erasora

Barrenetxea IVk. Berdindu egin zuten 25na, eta berriro ere, 28na. Aurrea hartu zuen orduan Barrenetxea IVk, 29 eta 28.

Baina erreto bikain batek, eta azken sake ederrak, Utergari eman zioten garaipena. Lau puntu bildu ditu horrela, eta hernaniarrak, bi. ■

ASTE NAGUSIA (DONOSTIA)

Egun osoan, Euskal Herriko nekazal produktuen VI. Azoka, Loiola kalean; Zurriola Street Food, Kursaalako terrazan; eskulangintza azoka Vinuesan.
09:30-15:00, Itsas-Zaborra Out, Nautikoko terrazan.
10:00, Getaria-Donostia kayak.
10:00-20:00, hondartza-boleibol herri txapelketa, Zurriolan.
10:45, Nordic Wlaking zeharkaldia eta bizikleta eta patinetan jai giro martxa, Saguesetik, beroketak egin ondoren.
11:00-13:30/17:00-19:00, haurrentzako tailerrak, Kursaal.
11:00, VI. Gastronomía Lehiaketa gazteentzat bertako produktuekin, Bretan.
11:30-13:30, haurrentzako ludoteka Vinuesa plazan.
12:00, Euskaldantza Musikoak, Bulebarreko kioskoan, Ortazarrekin.
16:00-20:00, puzgarriak, Bertsolari Txiritan (Jolastokietan).
17:00, IV. Goitibehera jaitziera, Markotegi bidetik (Zuatzu).
17:30, Jalgi Hadi Dantza!, haurrentzako erromeria Zuloaga plazan.
18:00, zezenak Illunben.
18:30-20:30, feltroarekin lan egiteko parte hartzeko tailerra, Vinuesan.
18:30, erraldoiak eta buruhandiak, Abuztuaren 31 kaletik aterata.
18:30, Taupada batukada, Grosen.
19:00-20:00, gazteentzako makilaia tailerra Kursaalako terrazan.
19:00, Valtierako musika banda, Bulebarreko kioskoan.
19:00, Musika Hamabostaldia: W.A. Mozarten *Las Bodas de Figaro*, Kursaalako Auditorioan.
19:30, Sardin jatea, Easo plazan.
20:00, Sara Mansilla kantautorea Kursaalako terrazan.
20:00, Kresala dantza taldea, Konstituzio plazan.
22:45, Su Artifizialen Nazioarteko 54. Lehiaketa, Kontxako badian: *Hermanos Caballer Pirotécnicos S.L.* (Castelló).
23:30, zezensuzkoen entzierroa, Miramar kaletik aterata.
23:30-02:30, Kursaal Gune Zabala: Aste Nagusiko DJ Gazteen II. Erakustaldia: Nico Ross (23:30). DJ Bitt (00:30).
23:30, *Tsunami* orkestra, Easo plazan.
23:30, C.Garmendia eta M.Govillard dantza eskolaren *Entrevarios* dantza ikuskizuna Bulebarreko kioskoan.
23:45, Legend Bob Marley, Saguesen.

Piraten egitaraua

11:00, Hamaiketakoak La Flamenkan eta Grosen, eta erromeria Urgullen.
11:30tik aurrera, haur jolasak, Urgull konkistatzea eta estanke aboradzea, bazkaria eta dantzaldiak Intxaurren eta Bernart Etxeparen.
12:00, V. Argazki Rally Herrikoa La Flamenkan.
16:00, Mus Txapelketa Herrikoa Trinian
17:00, Trivial Feminista, La Flamenkan.
19:30, Desafioa, La Flamenkan.
20:00, *Erradikalak gara*, Guardetxean: bertso-monologia, Ane Labaka eta Beatriz Egizabalekin.
20:30, *Lumi*, Lastaganean.
21:00, Afari musikatuak, Trinian.
23:05, *Koban+Iseo&Dodasound with the Mousehunters + DJP3z*, La Flamenkan.
23:30, Alwa+Manci, Lastaganean.
23:30, *Gu geu*, Trinian.

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

Adarraga
Konfitegia
Pasteldegia

Urbietan Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

gse
Asesoreak

Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua

Gudarien plaza, 13
Telfnoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net

CATALANA OCCIDENTE
Aseguruak

Atzeta 30 -
20120 Hernani
Telf - 943-332440
Fax - 943-556602

-Bautista-Burrarena Etxegolen

☎ **TAXIAK:** 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103
✚ / **Egunez:** A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 / **Gauz:** Etxebeste Elkano, 9 (Hernani) 943 552087

EGURALDIA **GAUR** Eguzkia izango da jaun eta jabe, eta tenperaturak gora egingo du. Arratsaldean, hala ere, brisa ibiliko da, eta bero-lainoak garatuko dira. **Min.13° / Max.24°**
BIHAR Goizean hego-haizea ibiliko da, eta berotu egingo du nabarmen. Arratsaldean haizea aldatu eta zakartu egingo da, eta zaparrada trumotsuak bota ditzake. **Min.17° / Max.35°** (euskaime)

ARRAUNA

Bosgarren berriro ere, 'Maialen'

San Juan, Orio, Hibaika eta Donostiarra sartu ziren Hernaniren aurretik, Ondarrun. Hurrena, I. Iparragirre Sagardotegia Saria jokatuko dute.

BERE bideari tinko eusten ari da Hernani, eta atzoko estropadan, Ondarrun, bosgarren egin zuen berriro.

Aurretik sailkatu ziren San Juan (10:45,42), Orio (10:51,27); Hibaika (10:57,81) eta Donostiarra (11:19,63).

Hernanik 11:22,12 egin zuen, eta atzetik sartu ziren Arraun Lagunak, Deusto, Portugalete, Castreña eta Lea-Artibai.

Gipuzkoako Liga bukatzeko beste bi jardunaldi besterik ez dira geratzen, eta sailkapen orokorrean ere ez da aldaketa-

rik izan; bosgarren segitzen du Maialenek.

Iparragirre Saria, asteartean Hurrengo zita asteartean Munduaren dute, 11:30etan, Hernanik antolatuta; I. Iparragirre Sagardotegia Saria. **II**

GOIZUETA AMABIRJINAK

Umeek hasiera jaiei, gaur eta bihar

Txupinazoa bihar botako dute Goizuetan; umeek eginen dute. Gaur, ordea, Umeen Eguna ospatzen hasiko dituzte fiestak.

EZIN itxaferoa bota arte itxoin, eta gaur, Umeen Eguna narekin jarriko dute festa giroa Goizuetan, nahiz eta Amabirjin jaiei hasiera ofiziala emanen dien itxaferoa bihar botako duten; umeek, baita ere.

Musika, goizean goizetik

Festa giroan murgiltzeko, ezinbestekoa izaten da musika, eta gaurkoan ere ez da faltako. Goizean goizetik hasiko dira Aurorok, Umore Ona

koruaren eskutik, kaleak alaitzen, eta Irumaita Txarangak segiko die gero, 09:00etan.

Meza izanen da 11:00etan, eta haurrek bertako jantziak eramanen dituzte soinean. Segidan, pilota partiduak izanen dira, eta bazkaria, gero.

Arratsaldean, xexen eta poniak, espuma festa, eta berriro ere musika izanen dira, Plaza Irrintzika ekitaldian. Bingoarekin bukatuko dute.

Umeen Eguna pasata, Gazteena iritsiko da, bihar. **II**

GAUR, UMEEN EGUNA

08:00, Aurorok, Umore Ona koruaren eskutik.

09:00, Irumaita Txaranga, herrian zehar.

11:00, Meza, haurrak bertako jantziak dijoaztela.

12:30, Pilota partiduak, herriko pilota eskolako haurrekin.

14:00, Umeen bazkaria, Ikastolan.

16:30, Xexenak eta poniak plazan, Lasturren eskutik.

Ondoren, haurrentzako merienda, Guraso Elkartearen eskutik.

18:30, Espuma Festa, Plazan.

19:30, Plaza Irrintzika, Plazan.

20:30, Bingoa Goititikiren alde, Ikastolan.

JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Tourist Go Home??

Turismo ereduari buruzko Euskadiko udako eztabaidari bueltaka, lehengoan jakin egin nahi izan nuen zer den gustatzen ez dena, eta informazio pixka bat aurkitu dut sare sozialetan.

Gaizki ulertu ez badut, ezker abertzalearen keja da gune eta momentu batzuetan turismoak sortzen duen masifikazioa, bizilagunen bizitza eta elkarbizitza kaltetzen dituen.

Masifikazio honek ez dio gune horietako gizarte zatiari bakarrik eragiten; eragiten die, baita ere, etxebizitzei, lanbideei, ohitura eta identitate galerari, onurak gutxi batzuei bakarrik ekartzen dizkiela esaten dute... Hori guztia bazegoen, EAJrekin batean Euskadiko Turismo Legea onartu zutenean, 2016an.

Desberdintasunak desberdintasun, Hernanin antzeko

zerbait bizitzen dugu Txotx denboraldian. Milaka lagun inbasioak eragina dauka beste hiri batzuetan arriskuan daudela diruditen aipatutako horietan guztietan. Baina, hemen ez?

Inbasio horrek arriskuan jartzen du bizilagunen arteko elkarbizitza, txox denboraldian; Kaxkoak bizitoki gisa izan dezakeen erakargarritasuna txikitzen du; gutxi batzuek jasotzen dituzte onurak (zalantzan jartzen dut, jarduera ekonomikoa ere sortzen baitu: tasa eta zerga bidezko diru-sarrerak eta lanpostuak; eskerrak Udalak prentsa oharren batean onartzen duen aberastasun sortzaile badela); ez dugu orain jarriko zalantzan txotx kulturatik ez dagoe-

la ezertxo ere, ezta? Zalantza eginen dut inbasio horrek era-

gin positiborik sortzen ote duen Kaxkoko komertzio tradizionala; gastu publiko haundiagoa sortzen digu, aparteko gastua eta, hala ere, eskasa, egin behar izaten baitugu festetako masifikazioak eragindako segurtasun eta garbiketa arazoei aurre egin behar izaten diegulako: borroka eta erasoak, bandalismoa, gizalegezkoak ez diren portararak, errespetu faltak...

Baina Donostian, Gasteizen edota Bilbon gustatzen ez zaigun honek guztiak, Hernanin berdin digu? Kontrola jartzeak ez du zertan negatiboa izan behar. Euskadin, turismoa Barne Produktu Gordinaren (PIB) %6 da, eta Gizarte Segurantzaren afiliatutakoen %10,7.

Ricardo Crespo Rubio,
PSE-EEko bozeramailea
Hernaniko Udalean

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

LANDER ARRIOLA AGIRRETXE
Goxo-goxo joan zara, etxekoan musika doinuek lagunduta. Zoriontsu egin gaituzu urte hauetan. Eskerrik asko, egin diguzun opariagatik.
ORTEGA-BARRENETXEA FAMILIA
Hernanin, 2017ko abuztuaren 13an

LANDER ARRIOLA AGIRRETXE
Heriotza aienatzeko geure hezurretatik, ez dago maitasuna bezalako sendagairik.
MAITE ZAITUGU
BARRENETXEatar OSABA IZEBAK
Hernanin, 2017ko abuztuaren 13an

LANDER ARRIOLA AGIRRETXE
Saminez agurtzen zaitugu. Aurrerantzean, zure musika doinuek gure artean jarraituko du. Beti izango zaitugu gogoan.
BARRENETXEatar LEHENGUSUAK
Hernanin, 2017ko abuztuaren 13an

LANDER ARRIOLA AGIRRETXE
Egun lainotsuenetan ere, eguzkia eta irrifarra opa nahi izan zenizkigun. Ixo txaranga sekula ixilduko ez dena izango da, zure tronbona!
Eskerrik asko, Lander.
SOS
Hernanin, 2017ko abuztuaren 13an

LANDER ARRIOLA AGIRRETXE
Betiko izango zaitugu gogoan.
BETI EGARRIAK TXARANGA
Hernanin, 2017ko abuztuaren 13an

LANDER ARRIOLA AGIRRETXE
Besarkada haundi bat, Ainara eta familiari.
AINARAREN HERNANIKO LAGUNAK
Hernanin, 2017ko abuztuaren 13an

IRAGARKI MERKEAK

Etxea salgai erdialdean, 94 m2, txoko eta baratzearekin. Deitu: 675 179 804

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Irigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)